

**Baterako ebazpena, 2020ko otsailaren 21(e)koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Enplegurako Prestakuntzako eta Diru-sarrerak Bermatzeko zuzendariarena eta Laneratzea Aktibatze zuzendariarena, zeinaren bidez izendatzen baitira lana duten langileei eta lana lortzeko edo hari eusteko zailtasunak dituzten pertsona langabeei zuzendutako laneratze- eta gizarteratze-proiektu berezien garapenerako dirulaguntzen 2020ko ekitaldiko deialdiaren babespean aurkeztutako eskaerak aztertu eta ebaluatu behar dituen ebaluazio-batzordearen kideak.**

Lana duten langileei eta lana lortzeko edo hari eusteko zailtasunak dituzten pertsona langabeei zuzendutako laneratze- eta gizarteratze-proiektu berezien garapenerako dirulaguntzen 2020ko ekitaldiko deialdiaren (2019/12/26ko EHAA) 7. artikuluan prozedura eta ebazpena arautzen dira. Artikulu horren 2.1 apartatuan xedatu legez, eskaerak aztertu eta ebaluatze aldera, ebaluazio-batzorde teknikoa sortuko da, eta honako hauexek izango dira batzordekideak:

- Prestakuntzako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Errentako zuzendaria.
- Laneratzea Aktibatze zuzendaria.
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko teknikari-profila duten lau pertsona, berariaz izendatuak; horietako batek idazkari-lanak egingo ditu, eta hitza adierazteko zein bozka emateko eskubidea izango du.

Horretarako, ebaluazioa hasi baino lehen hauxe

## **EBAZTEN DUGU**

**Lehenengoa.-** Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko teknikari-profila duten pertsona hauek izendatzea ebazpen honetan aipatutako deialdiaren 7. artikuluan xedatutako ebaluazio-batzordearen kide:

- Itziar Etxebarria Lanborena
- Veneranda Andrés Andrés
- Marta Palenzuela Saenz de Buruaga
- Ángel Altuna Urcelay

Modu horretara, batzordearen kide guztiak eta euren zereginak honako hauek izango dira:

- Batzordeburua: Prestakuntzako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Errentako zuzendaria, Jon Uriarte Unzu.
- Idazkaria: Veneranda Andrés Andrés
- Batzordekideak:
  - Laneratzea Aktibatze zuzendaria, Marta Etxebarria Ubis.
  - Itziar Etxebarria Lanborena.

- Ángel Altuna Urcelay
- Marta Palenzuela Saenz de Buruaga

**Bigarrena.-** Batzordea eratzeke eta ordezkapenak antolatzeke honako araubide hau ezartzea:

Ebaluazio-batzordea balioz eratuko da batzordeburuaz edo idazkariaz gain –edo horien ordezkoez gain–, kideen erdiak, gutxienez, bertan daudenean.

Batzordebururik ez badago, batzordekideetako batek ordeztuko du batzordeburua, aurreko lehen puntuari aipatutako hurrenkerari.

Idazkaririk ez badago, batzordekideetako batek ordeztuko du idazkaria, aurreko lehen puntuari aipatutako alderantzizko hurrenkerari.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailaren 21.

Iz.: Jon Uriarte Unzu  
Enplegurako Prestakuntzako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Errentako zuzendaria

Iz.: Marta Etxebarria Ubis  
Laneratzea Aktibatzeke zuzendaria